


Euskal hogei eskualdeetako hemeretzitan industriaren salmentek hobera egin dute 2011n

Langile okupatuen kopuruak, halere, behera egin du hamazazpi eskualdetan

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko hogei eskualdeetatik hemeretzitan erauzketa eta manufaktura industriaren salmenta garbien bilakaera positiboa izan da. Urola-Kostak bakarrik izan du bilakaera negatiboa 2010aren aldean (%-3,8).

Erauzketa eta manufaktura industriak, bere osotasunean, salmenten %9,7ko hazkundera izan zuen. Arabak izan zuen hazkunderik handiena, %14,2; hazkunderak eskualde guztietan. Hiru eskualde hazi dira lurraldearen eta erkidegoaren batezbestekoaren gainetik: Arabako ibarrak (%16,4), Kantauri Arabarra (%16,3) eta Lautada (%15,8); azken honena bereziki garrantzitsua da lurraldeko salmenten %65 hartzen duelako.

Erauzketa eta manufaktura industriaren salmenta garbien banaketa, eskualdeka. 2011. Milaka euro



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industriaren estatistika

Bizkaian %11,6 handitu dira salmentak, hazkundera zazpi eskualdeetan. Hazkunde handienak: Gernika-Bermeo (%13,9), Bilbo Handia (%12,6), Markina-Ondarroa (%12,5); denak euskal industriaren batezbestekoaren gainetik. Salmenten hazkunderik txikiena Arratia-Nerbioin, %1,1.

Gipuzkoan %4,2 hazi zen batez beste; hiru eskualde horren gainetik: Debarrena, %14,3, Tolosaldea (%13,1), Donostialdea %8,9. Gipuzkoan da 2011n salmenta-jaitsiera izandako eskualde bakarra, Urola-kosta, %-3,8.

Erauzketa eta manufaktura industriaren salmenta garbien banaketa, eskualdeka. 2011. Milaka eurotan

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Salmenta garbiak		
	2010	2011	Δ 11/10	2010	2011	Δ 11/10
Euskal AE	210.616	204.613	-2,9	46.639.906	51.168.793	9,7
Araba / Álava	42.940	42.003	-2,2	10.067.661	11.493.482	14,2
Arabako Ibarrek/Valles Alaveses	2.303	2.283	-0,9	427.459	497.450	16,4
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	26.716	26.146	-2,1	6.460.657	7.480.610	15,8
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	387	343	-11,4	70.574	75.414	6,9
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	3.706	3.533	-4,7	820.447	848.212	3,4
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	2.895	2.741	-5,3	769.608	825.651	7,3
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	6.933	6.957	0,3	1.518.917	1.766.146	16,3
Bizkaia	85.867	82.430	-4,0	21.270.989	23.738.683	11,6
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	4.288	4.141	-3,4	870.921	880.530	1,1
Bilbo Handia/Gran Bilbao	48.253	45.696	-5,3	14.432.620	16.244.477	12,6
Durangaldea/Duranguésado	18.858	18.584	-1,5	3.486.518	3.855.148	10,6
Enkartzioak/Encartaciones	1.686	1.638	-2,8	287.330	300.854	4,7
Gernika-Bermeo	3.764	3.787	0,6	810.460	922.826	13,9
Markina-Ondarroa	3.624	3.599	-0,7	518.208	582.740	12,5
Plentzia-Mungia	5.394	4.985	-7,6	864.933	952.108	10,1
Gipuzkoa	81.809	80.180	-2,0	15.301.256	15.936.628	4,2
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	4.795	4.650	-3,0	726.349	726.562	0,0
Deba Beherea/Bajo Deba	8.878	8.619	-2,9	1.220.128	1.394.505	14,3
Deba Garaia/Alto Deba	15.553	15.500	-0,3	3.032.441	3.053.165	0,7
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	20.877	20.213	-3,2	3.694.024	3.754.200	1,6
Goierri	13.055	12.693	-2,8	2.964.216	3.228.723	8,9
Tolosaldea/Tolosa	7.761	7.780	0,2	1.501.784	1.699.082	13,1
Urola-Kostaldea/Urola Costa	10.890	10.725	-1,5	2.162.314	2.080.390	-3,8

Iturria: Eustat – Euskal AEko Industria Estatistika

Euskal AEn %2,9 jaitsi zen langile okupatuen kopurua: Bizkaian (%-4,0), Araban (%-2,2), Gipuzkoan %-2,0. Araban enplegua Kantauri Arabarrean bakarrik hazi da, %0,3. Daukan garrantzi erlatiboagatik nabarmentzekoak dira Arabako Lautadako enplegu-jaitsiera (%-2,1), baita ere Errioxakoa (%-4,7) eta Gorbeia Inguruetakoa (%-5,3).

Bizkaian industria-enplegua Gernika-Bermeon (%0,6) bakarrik hazi da. Kontrako aldean, industria enpleguaren jaitsierarik handiena Plentzia-Mungian, %-7,6. Bizkaian Bilbo Handiko enplegu-jaitsiera (%-5,3) nabarmentzen da. Jaitsiera lurraldeko batezbestekoaren gainetik da, eta Euskal AEn industria-langile kopururik handiena duen eskualdea da.

Gipuzkoan, beste bi lurraldeetan bezalaxe, eskualde bakar batean (Tolosaldean, %0,2) hazi da enplegua. Eta hemen ere enplegurik gehien galdutako eskualdea industri enplegurik gehien duena da, Donostialdea, non %3,2 jaitsi den. Ondoren Bidasoa beherea (%-3,0) eta Debarrena (%-2,9).

Ohar metodologikoa:

Erabilitako sektorizazioa Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-2009) da; eskualdeen arabera desagregazioan B (erauzketa) eta C (manufaktura) sekzioak bakarrik daude.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko industria-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko estatistika-estatistikari buruzko datu-bankua